

AXULARRen berri gutti ezagunak

Duela urte parrasta bat, gure autoreari buruz itzalditxo bat egin nuen Donostian, 1953 urtean; Euskalzaindiaren itzalean, guk abiatu ginituen itzaldi haietako bat. Orduan esandako zerbait aipatuko dut hemen, oraiko berriez ornitua. Baino, deus aundirik esan dezakeguia, yadanik errepikatua eztena?

Aitor dut atseginez ari naizela, abantxuene erritarra izan zelakotz AXULAR zaharra, Urdazubiko lurra Baztango dermioen barrenean dagoelako eta lehenagoko denboretan, Baztango egiten zen xoilki.

Pedro Daguerre Azpilcueta deitzen zen berez, *Axularr* bere sortetxe izenetik ezagunago betidanik, ordea. Guti dakigu bere gatzaroaz, ezen 40 urte beteak bazituen apez ordenatu izan zeneko Tarbes-en. Hemen Iruñean artu zuen diakono ordena, eta hemengo Apezgaitegian eta Léridan egin zituen ikastaroak. Baino zer aritu zen adin hortaraino, hemendik harat, leku estrainotan ibilki? Edo zerbait traba ezkutu bide zuena?

Garai haietan beretan haren inguruko Eskalerrian, ikaragarrizko zorigaitzak gertatzen ziran; Akelarre batzarretara elemeniaka omen zoazin aldiartan jendeak, eta orduan gertatu ziran Pierre de Lancre (de Rostegui izeneko, damuz) epaikari zela, sorgin dohakabeen erretze deitoragarriak. Eta haien artean, bizirik erretakoen artean, iru apezen izenak kausitzen ditugu; bi zahar, *Arguibel* eta *Miguelena*, Azkainen erreak eta *Bocal*, Ziburuko erre tora, 27 urtetakoak.

Nola eta zer bide-tik eldu zirenez apez dohakabeak azken fin *izigarri hortaraino, deus eztagigu*.

Pierre de Lancre-k dionez bere «*L'incredulité et mescreance du sortilège plainement convaincue*» (1622), liburuan; «...Les basques de St. Jean de »Luz, lorsqu'ils brûlèrent sur la place publique le 19 mars 1619 une juive, qui »après avoir communié avait craché l'hostie dans son mouchoir, voulurent »expulser les juifs sans délai; ils criaient: *ez, ez, ez! oray, oray, berehala!*» gure arbasoek ere, izigarrikeri haietan parte izan zutela iduri du.

Eta orai galde bat, beti erantzunik gabe gelditu dena nere buruan; zergatik ezdu Axularrek bere liburuan sorginkeriaz itzik ere aipatzen? —Bekatu aundi bat izanik eta orduko Euskalherrian asko edatua? — Nik uste

ANGEL IRIGARAY

dut, eta bestek ere, ixilegote horrek, ozenki adiarazten duela agintari sukoi (!!) eta herritar gogor haien epai eta ikusmolde krudelekin, etzagoela batere ados; eta emazteki ments zorigaitzokoen aitorpenetan gutti sinesten zuela. Ezen orduko izkiazale guztiek diote gizon ikasia eta argitu bat zela Axular (*Viro magni nominis in nostra Cantabria...dio Dissanechek*); eta haren liburutik, funtsean, bere zentzua eta adimena nehurtzen ahal ditugu irakurleek.

Beinipein herrian sorginkerizko ipuinak kontatzen dira Axularrez; eta bat aski ezaguna; Salamanca-n ikasten egon zela beste birekin, debruak leize batean zeukan Eskolan. Dena den, Axular bera, erdi aztia ezpazen ere, ipuinak argi aski adiarazten du bere izenaren eta ospearen edadura.

Axularren laudoriotan mintzatu diren guztiak aipatzeko eztugu tokirik. Utziko ditugu mendiz bestaldekoen gorapenak, (Ioanes d'Etcheberri, Lafitte, Otsobi...): halabainan Lafitte jakintsuak esan izan du... «harritua dagola zoin guti aipu duen Axularrek otoitza, zoin guti komunionea, kasik baterez grazia...» Bestek berriz uste dute debozioezko gomendio estu guti usatzen duelako preziski, dela liburu hori irakurtua izan, mundutar presuna arront direnengandik bereziki.

Hala ere 363 orrialdean badio urdazubiarak... «Haragiaren beccatutic »beguiratceco,...lehenbicico erremedioa eta bidea, oracinoa...hartan cutsatu »gabe egoitea eta irautea, Iaincoaren donua, dohaina, emaitza eta garacia »dela»; etzuen beraz, otoitza ahanztu.

Larramendi idazle trebeak goieneko laudorioen artean aipatzen du Axular; bere —*Corografía de Guipúzcoa*— liburu xarmagarrian GUERO-ren zati bat dakarra; eta bere Iztegi audiaren aitzin solas luzean dio:... «Un »tomo en 8.^º del célebre Pedro de Axular... El bascuence es elegante, propio, puro, abundantísimo; el asunto tratado por principios, probado por la Sagrada Escritura, padres de la Iglesia, ejemplos y semejanzas muy »oportunas.

»Los vicios pintados al natural y convenientísimos sus remedios. Anda »en manos de muchos, y debiera en las de todos los Vascongados y ojalá »hubiera dado a luz la 2.^a parte que ofrece...» etc.

ORIXE idazle zenak Axularren tankeraz eta estiloaz dio:... «Axularren asmoa, pentsamendua argi agertzea da, eta ez dijoa igesi beste asko »bezala, buruan daukana adiaraztetik. Asko eta asko gaur erderaren igesi »dijoazela, pentsamenduaren (burutapenaren) igesi dabilta».

Zenbait tokitan joskera arteza eztuela esan behar da; latin eta erdaraen sintaxis kutsuko hiperbaton eta apoloako kausitzen dira GUERO liburuan, bainan gramatikalariek batzutan zorrotzegi beren erreglak eramatzen

AXULARREN BERRI GUTTI EZAGUNAK

dituzte. Beste idazle aundietaz ere inkorrekoak dirala esan da (Shakespeare, Dostoiewsky, Cervantes...). Haren euskarak, beste euskeratik ere badu, giputzetik ere ez gutti: literario-batasun horren kezka bat izan zuela nabari da. Metaforak eta sinonimiak maiz ikusten ditugu GUERO -an; iruzpalau izen berdintsu lerro-lerro *berariez* sartzen dituela nago, izketa differenteko irakurle bakoitzak, dakien itza erraz aurkitzeko: hala bada... «nola ardia »otsoaren iccusteaz lazten, larritcen, asaldatcen, icitcen eta iccaratzen baita...»

Gaiaren aldetik berriz, beti da sakon, zentzuko eta jakingarri, ondoko etsenpluetan ikus daiken bezala; gorrotoaz, erraz, alferkeriaz, nagikeriaz, lizunkeriaz... obratu ditazken kontseiluak, baliagarri beti, ematen oi ditu.

Urquijok aipatu zuen Fr. Luis de Granada-ren izkributik Axularrek zatiaren bat artu bide zuela; eta hala egiztatzen du Lafittek ere; baina hori ezta oben larria. Azkuek esan zion behin Urquijori:... «Si se probara que »el GUERO no es un libro original, lejos de disminuir mi admiración por »Axular, aumentaría; porque necesitó, a mi juicio, mayor dominio de la »lengua para traducirlo, que para escribirlo espontáneamente...»

Shakespearek berak zituen, aintzineko autoreak imitatu, Fr. Luis de Leonek Horazio, Góngorak Virgilio, Virgiliok Homero... Zatiñoren bat gora beera, GUERO-reна eta Guia de Pecadores delakoaren tankera eta estiloa arront bestelakoak dira; Axular barnakorrago da, gizoneri zuzendua; Granada, lirismoetara egaldatzen da, emaztekiendako egoki diran iduripenak erabiltzen ditu; fedean duda izpirik ezdutenei mintzo da Granada; sinestea epelago dutenei berriz, Axular laketago zaie; hau ezta retorikoa edo barrokoa, baina bai iztun-ederra (eloquente).

Sarako erretorak Plauto, Plutarco, Marcial, Diógenes Laercio, Juvenal, S. Juan Crisóstomo, S. Agustín, Martin de Azpilcueta eta beste autoreen zatiak lerdenki itzulikatzen ditu, euskararen kutsua galdu gabe. Bertran d'Etchaux artxapezpikuari dio liburua dedikatzen; eta haren iduri zehatza azaltzen digun ezgeroz, baigorriarra euskalzale bete bat izan zela badakigu. Hala diotso Axularrek: ...«Zu izan zara eta izanen zara Escaldunen ohorea, »habea, jabea, sostengua eta Cantabrés fiña, naturala eta eguiazcoa»... Zer ere iscribatuco baita escaraz, hora guztia, Escaldunen buruzagui beçala, çuri dagotçula, zuri zor zaitzula...»

Huna orai zati bat aserreari buruz: ...«Beguiratu behar da sobera ha-»serretcetic, alde eguin behar zaica hirari, beguia eduqui behar zaica colé-»rari, eta ez prestuqui eta honestqui biciteagatic, baiña bai gorputzeco osa-»sunagatic ere...Haserretcea eztago ez hanbat, eguitecoaren balioan, nola presunaren condicinoan... Halatan erraiten du Platonec: presuna haserre-»corrac eta colérac adimendutsu direla, eta anitz icasteco on; ez ordea he-

ANGEL IRIGARAY

rrien gobernacoko, eta ez escola edukitceko ere. Zeren hartaracotzat pa- ciencia behar da, sosegua behar da eta anitzetan ere, icusia ez icusi, eta adi- tua ez aditu iduri, egun beharda...»

Livio filosofoak bere discipulu Theodosio Emperadoreari kontseilu hau ematen zion: ...«Hala zarenean (aserre), ez kexa, ez leia, ez berehala abia, »iguriqui apur bat; ez deuseguin, ez erran eta ez aitzina, A-B-C- eta hey »darraizten bertze letrac erranarteño...». Eta Axularrek segitzen du: ...«Co- »fesa ahal zaiteque, gorputz saindua errecibi, barur, orazinotan egon eta »duçun guztia probei eman, baiña hec guztiac *etzaizquitçu deus baliatuco*, »baldin barrenean nehorni herraric, heguingoaric, gorrotoric edo borondate »gaixtoric badiaducozu...».

Goazen orai beste alderditik ikertzera.

Arcaísmos y construcciones erdéricas en el GUERO

Después de todos esos elogios, vamos a hacer en esta segunda parte, de abogado del diablo; refiriéndome a algunas locuciones defectuosas, que también se encuentran alguna vez en ese libro, lo mismo que se pueden encontrar en cualquier obra consagrada, del erdero.

Esto no será inútil, pues servirá a los escolares de Axular, para afinar la comprensión y matizar la versión castellana. Incluso alguno ha pensado en componer una breve selección de textos del GUERO, amenos, sustituyendo formas verbales arcaicas por modernas del guipuzcoano-labortano, y corrigiendo algunas sintaxis erderizantes; para uso de los principiantes.

Esta labor podrá ser útil, a condición de que el redactor sea muy parco y buen conocedor de ambos lenguajes; pues entre nuestros *idazles* está arraigada la manía de corregir todo lo que leen, aunque sea correcto. Añadiré, para que nadie se extrañe, que esta adaptación se hace en otros idiomas y es legítima (Chaucer, Cervantes, Montaigne, etc.); y también aquí se ha ensayado en esta misma obra.

No estará de más recordar aquí, pues, algunas locuciones modernas que M. Lecuona añadió al margen de las páginas de su cuarta edición del GUERO, con acierto, sinónimas de las formas arcaicas del texto:

Ertsi baitcerausquidaten- (bai zizkidaten) = pues me los cerraron.

Zer gueneidique — (zer gindeke) = que seríamos.

Mintca araçitcen zaituzteçate — (...zaituzte) = os hacen hablar.

Derauzquigutela -(dauzkigutela—dizkigutela) = que nos los han.

Hay otras frases en ese libro que son similares a las actuales, sin que haya necesidad de adaptación: así... *Zaicona* -(zaiona) // *Narraicon* -(na-

AXULARREN BERRI GUTTI EZAGUNAK

rraion)-//Baitçaica -(baitzaio)-//—Otras formas en cambio admiten el cambio, como se ha dicho.

Eguiten *deracute-* (*daukute—digute*) = nos hacen.

Litçateque -(litzake) // Erran ahal diazaio -(...zaioke) = le puede decir.

Guerta lequidicaio—(...gerta leikio)// Eztaçon- (ez dezaion).

Ecin daidquet- (ezin (ó ez) dezaket) = no puedo.

La forma —*asi daquidanean*— (*zaitanean*) = cuando me ha empezado—se usa hoy en Sakana-(Barranca).

Autsi behar derauztela- (...diozkatela) = que les van a romper.

Nahi lerauquegu—(...liguke) = nos quería.//*Deracu—(Digu).*

Ematen derauzquitçun —(da(u)zkitzun) = los que te dá.

Baldin hemen bagueneunde—(...bageunde bagine), irets guinitçaque (ginduzke) gu ere lurrac = Si estuviésemos aquí, también nos tragaría la tierra.

Etor ahal daquidicaion—(dezaiokean) = que le puede venir.

Ditezqueien—(ditezken) = pueden// *Baiteraue-(-baidiete)* = les han.

Ezpaileratçu bezala -(ezpailitzuke...) = como si no te hubiera, etc.

Algunas frases de *-zeren—ezen-*, tan criticadas, ciertamente admiten corrección: así... «*Zeren bataz nola herriataric urrun baitcegoen* (Paulo abatea) *gueiago baitçecarqueien* (-ekartzen ahal zioten) *garraioaren gastuac, obraren balioac baino, eta berriz bertcea, zeren trabaillu hora guztia...*»; ambos *-zeren-* y *-nola-* se pueden suprimir sin que la frase pierda claridad, poniendo mejor —*bertzeaz-* en lugar de —*bertzea...*; pero igualmente como está.

Algunas veces *-ezen-* significando *-pues-* se puede respetar, como la anterior, así: ...*baiña çuc nola atheraco duçun, ecen barrenago sartcen duçu* (bahía = la prenda o garantía) = ...Pero cómo la levantarás tú, pues, (la garantía) metiéndola aún más adentro, (cargándola aún más).

En este otro ejemplo del GUERO, se puede respetar *-ecen-* pues dá énfasis a la frase: ...*Becathoreac lehenbician, beccatu guti duenean, badi-rudi, ecen, cerbait balio duela...*

Anotemos para terminar algunas secuencias de elegante dicción axulariana; en la *Gomendiozco carta* dice Axular: *nola expaicara bi mendetaco,*

ANGEL IRIGARAY

eta çuc çeurea haiñ ongui, haiñ oboresqui eta dohatsuqui iragan baituçu...
...«como no estamos para dos siglos, y tú el tuyo lo has aprovechado tan bien, tan honorable y tan felizmente», dirigiéndose a Mons. Echaux, ya difunto.

En la pág. 46 de la edición 2.^a, escribe el autor: ...*Naguia ere negu hotçean, atheac atheari darauntsanean* (*erauntsi* = sonar, golpear) *ohean iguitcen da, bertce aldera itçultçen da, burua goitituric iartcen da...* «En el frío invierno, cuando las puertas golpean una tras otra, también el perezoso se mueve en la cama, se vuelve de un lado al otro y se incorpora levantando la cabeza».

Con estas breves glosas del famoso libro, esperamos despierten en alguno la curiosidad de hojearlo, en la seguridad de que no quedará defraudado, y a los escolares del euskara, animarles para que sigan leyendo al gran escritor urdazubiarra.

ANGEL IRIGARAY